



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

BIZKAIKO PSIKOLOGIA ELKARGOAREN ESTATUTUEI BURUZKO TXOSTENA

LEA/AVC 349-ARAU-2019ko espedientea

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	1
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO GOGOETA JURIDIKOAK.....	2
III. LEHIAREN ARAUDIARI BURUZKO GOGOETAK	3
1.- 25. artikulua: Eskuordetutako botoa	3
2.- Beste gogoeta batzuk	3
IV. ONDORIOAK	5

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, bokala

Enara Venturini Álvarez, bokala

Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak, adierazitako kideak bertan direla, txosten hau eman du, 2019ko ekainaren 24an eginiko bileran, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren Estatutuei dagokienez.

I. AURREKARIAK

1. 2019ko ekainaren 5ean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzan (LEA); hari erantsita, Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialaren Estatutuen aldaketaren kopia bat jaso zen, lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren adierazteko. Indarrean dauden estatutuei dagokionez, **25. artikuluari** dagokio egin den aldaketa (**boto eskuordetua**).



II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO GOGOETA JURIDIKOAK

2. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, 3.3. eta 10.n artikuluetan, lehia sustatzeko erakundeari ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau. Funtzio horren helburua da euskal merkatuetan lehia eraginkorra sustatzea, eta, ahal dela, bermatzea. Horretarako, zehatzaileak ez diren neurriak hartuko dira, eta, horien artean, besteak beste, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira.

3. Gure antolamendu juridikoan, oinarri konstituzionala dauka elkargo profesionalak arautzeak. Hain zuzen ere, hau ezartzen du EKren 36. artikulua: «Legeak elkargo profesionalen araubidearen berezko berezitasunak eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute».

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargoetako lanbideetan lehia askea behar da, eta Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legea bete behar da, bere osotasunean. Egoera horren iturburuan, Europar Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatzearen ondoriozko zenbait arau-aldaketa daude. Lanbide-elkargoei buruzko estatu-araudiak Zuzentarau hori baino lehenagoko erregulazio bat du oinarri: Elkargo Profesionalen otsailaren 13ko 2/1974 Legea (aurrerantzean, LEL). EAEn, Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea. Hala ere, zuzentarauaren transposizioa egiteko Estatuko eta erkidegoetako arau ugari aldaketak eragin dituzte arau horietan eta, ondorioz, elkargo profesionalen jarduteko araubidean, batez ere hauek: Zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legea (Aterki Legea) eta abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zeinaren bidez zenbait lege aldatzen baitira, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko legera egokitzeko (Omnibus Legea), edo, EAEn, apirilaren 23ko 7/2012 Legea, zeinaren bidez zenbait lege aldatzen baitira barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Zuzentaraura egokitze aldera (zuzentarau horrek, era berean, aldatu egiten du 18/1997 Legea, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa).

EELren xedea honako hau da: «Tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian edota arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak soilik dituen eskumenak erabiliz eginga da araudia, Espainiako Konstituzioaren 139. artikuluari kalte egin gabe, betiere. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikulua horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

Horrenbestez, EELk arautzen du Psikologia Elkargoa, eta, zehazki, Europako Erkidegoko araudira egokitzeko asmoz 2012an egindako aldaketen ostean indarrean dagoen testuari jarraituz. Arau horren 9. xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraituz, «elkargo profesionalen araubidearen oinarriak arautzen dituzten manamenduak bere



osotasunean edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarrizko araudian birmoldatzen diren unean».

4. Elkargoek arautegia bete beharko dute estatutuak eta elkargoko beste arau batzuk idaztean (hala nola barne-araubideko erregelamenduak, ezarritako prozedurak eta arau deontologikoak), bai eta jardunean aritzean ere. Hori dela eta, estatutuen testua kontuan izan gabe, elkargoek ezin dute hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako.

III. LEHIAREN ARAUDIARI BURUZKO GOGOETAK

1.- 25. artikulua: Eskuordetutako botoa

5.- Hauxe ezartzen du osarari eta funtzionamenduari buruz aldatutako Estatutuen 25. artikulua:

1. “Elkargokide guztiek osatuko dute Batzar Orokorra

Elkargokide jarduleak eta ez jarduleak bertaratu ahal izango dira bileretara, hitz egiteko eskubidea izango dute, baina boto ematerik ez, eta beste kide bati eskuordetu ahal izango diote botoa arauz ezarriko den moduan...”

Elkargoaren barne-funtzionamenduari egiten dio erreferentzia proposatutako aldaketak, eta, ondoren, horri buruz ezarriko den arauzko bidalketa; hortaz, aldaketa horrek ez du ukitzen lehiaren defentsari buruzko araudia.

2.- Beste gogoeta batzuk

6.- 2016ko apirilaren 26an, txostena emana zuen Lehiaren Euskal Agintaritzak Estatutuei buruz, eta lehiaren gainean indarreko araudiari egokitzeari buruz. Horretan, Bizkaiko Psikologiako Elkargo Ofizialaren estatutuen artikulua batzuk aldatu egin behar direla ondorioztatu zen. Hortaz, 2016an LEAren txostenaren arabera aldatu ez ziren hainbat alderdi aztertzen dira txosten horretan; eta, gainera, estatutuen egungo aldaketaren berezko gogoetak eman dira, zeinari orain erantzun behar dion erakunde honek:



2.1.- 3. artikulua: Helburuak

8.- Estatutuen aldaketen barruan, bi apartatu gehitu dira manu honetan:

3. artikulua.- Funtsezko helburuak

(....)

j) Bitartekaritza bultzatzea eta garatzea, sarbidea eta administrazioa erraztuz, baita bitartekariak izendatzea ere.

k) Arbitrajeko eginkizunak betetzea, Legeak ezarritakoaren arabera.

9.- Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legeak, 5. artikuluan, hauxe ezartzen du: “haien lurralde-esparruan, elkargo profesionalen funtzio hauek betetzea dagozkie:

ñ) Bitartekaritza bultzatzea eta garatzea, bai eta arbitraje-funtzioak egitea, nazioan zein nazioartean, indarrean den legedian zehaztutakoarekin bat.”

10.- Estatutuetan jaso ez balitz ere, Elkargoak “ex lege” edukiko lituzke eginkizun horiek. Egia da Auzi Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legeak gatazkak era baketsuan eta adiskidetsuan konpontzeko bidea ekarri duela (BOE, 2012/07/07) --prozedura judizialaren formula alternatiboa edo osagarria-- non bitartekaria independentea eta neutrala den, eta alderdiei laguntzen dien gatazken konponketa saiatzeko elkarrizketarako gunea aukera-berdintasunean sortuz. Ildo horretatik, psikologoak profesionalak dira eta familia arteko gatazkak eta familia-enpresarekin lotutakoak kudea ditzakete.

11.- Estatutuetan, ez da argitzen bitartekari kideak izendatzeko prozedura; hortaz, gogoratzen da izendapen demokratikoa eta borondatezkoa izan behar duela, eta lehia askea bermatu behar dutela elkargoaren eta bere kideen artean, baita kideen arteko ere, ezar ez daitezkeen merkatu-banaketa izan daitezkeen sistema.



2.2.- 6. bis artikulua: Elkargokide motak

12.- Estatutuen 6.bis artikuluari dagokionez, hau esaten dute klausulek:

“6.bis 1 artikulua.- Elkargokide motak

(...)

4.- Psikologo elkartuak.

Psikologiako edozein profesional sartu ahal izango da Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofizialean psikologo elkartu gisa, baldin eta Espainiako beste edozein elkargotan badago (Psikologoaren Elkargo Ofiziala), eta estatutu hauetan eskatzen diren titulazio-betebeharrak biltzen baditu.

Beste lurralde-elkargo batzuetako psikologo elkartuek, lanean aritzeko Bizkaiko lurralde historikoan, Bizkaiko Elkargoaren eremuan lanbide horretan jarduteko arauak bete beharko dituzte.

(...)

13.- Europar Batasuneko arauetara jarraikiz, Espainiako Konstituzioaren 139. artikulua eta EPLaren 3.3 artikulua hauxe xedatzen dute: lanbide bat lurralde-elkargotan antolatzen bada, nahikoa da horietako batean kidetzea lurralde nazional osoan jardun ahal izateko.

Bestalde, EELren 39.4. artikulua hauxe jasotzen du: “Elkargoek ezin diete exijitu inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik elkargoa dagoen lekutik kanpo lan egiten duten kideei, ez eta elkargoko kuotak bere baitan ez dituen beste zerbitzu batzuegatik inolako beste ordainik ere, beren kideei normalean prestazioengatik eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparte”.

Ondorioz, Elkargoaren Estatutuek ezin dute baldintza gehigarriak ezarri beste lurraldeetako elkargoaren kide diren profesionalen haien lanbidea aske gauza dezaten Elkargoaren lurralde-eremuan. Horregatik, Estatutuen 6 bis 1.4 artikulutik ezabatu behar da Bizkaiko Elkargoan sartzeko eskatutako titulazioaren eskakizuna Espainiako beste Psikologia Elkargo Ofizial batean badago.

14.- Bestalde, EELren 38.1. artikulua bitan sailkatzen ditu elkargokideak: aktiboak ala ez aktiboak; hortaz, aipatutako estatutuen manuan bidezkoa da kentzea elkargokide elkartuen sailkapena.

IV. ONDORIOAK

Lehena.- Elkargoetako lanbideetan lehia askea egon behar du, eta uztailaren 3ko 15/2007 Legea, Lehia defendatzeari buruzkoa, bete behar da, bere osotasunean.

Bigarrena.- Aldatutako manuei dagokienez, lehia askearen eremuari eragiten ez dionez, Lehiaren Euskal Kontseiluak aldeko txostena ematen du Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofizialaren Estatutuak aldatzeko.



Hirugarrena.- Bitartekaritza eta arbitrajeari buruzko 3. artikularen j) eta k) letrei dagokienez, izendapen demokratikoa eta borondatezkoa izan behar du, eta lehia askea bermatu behar du elkargoaren eta bere kideen artean, baita kideen artekoa ere.

Laugarrena.- Elkargokide motei buruz indarrean dagoen 6.bis 1.4 artikuluari dagokionez, elkargokide elkartuen kategoria kentzea eskatzen da, baita Bizkaiko Elkargoan sartzeko eskatutako titulazioaren eskakizuna ere Espainiako beste Psikologia Elkargo Ofizial batean badago.